

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Sexu-transmisioari egotzi daitezkeen GIB birusak infektatutako kasuak gehitu egin dira Nafarroan

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gogora ekarri du babesteko era onena preserbatiboa dela

Martes, 01 de septiembre de 2015

GIB birusak infektatutako kasuak gehitu egin dira azken bi urteetan Nafarroan: 44 kasu 2013an eta 49, 2014an; 2012an, 32 izan ziren. Kasu berri gehienetan, gizonezkoek gizonezkoekin dituzten sexu-harremanen transmisioa nagusitzen da, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ([ISPLN](#)) [jakinarazi](#) duenez.



GIB birusaren infekzio-kopuruak gora egin du Nafarroan.

Aldi berean, detektatu da gizonek gizonekin sexu-harremanak izateko sare sozialen "kontaktuen" zenbait orrialdetan "juntadizoak" egiteko proposamenak argitaratzen ari direla Nafarroan nahiz inguruko autonomia erkidegoetan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Errioxa eta Aragoi); haietan, taldetan parte hartzea proposatzen da babesik gabeko sexu-harremanak izateko. Azterketa batzuen arabera, frogatuta dago babestu gabeko sexu-harremanak sustatzen den tokietan GIB birusarekin infektatzeko eta beste infekzio batzuk izateko arriskua biderkatu egiten dela.

Alde horretatik, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak "juntadizo" horietara joateko interesa dutenei gogora ekarri nahi die sexu-transmisioaren bidezko infekzioei aurre egiteko babes onena preserbatiboa eta lubrifikatzailea erabiltzea dela. Halaber, GIB proba egitea komeni dela azpimarratu da infekzio gehiago saihestu ahal izateko eta tratamendu-aukerak era goiztiarrean aplikatzeko.

Gainera, institutuak berak zenbait erakunde eta gizarte-entitatekin lankidetzan aritzen da prebentzioko mezuek zabaltzeko, bai eta informazioa jasotzeko ere; informazio horri esker, jarduera-lerroak eta estrategiak egin ahalko dira GIB birusarekin infektatutako kasu berriak murrizteko asmoz.

2.107 kasu Nafarroan

Hiesaren epidemia hasi zenetik 2014 arte GIB birusak infektatutako

2.107 kasu diagnostikatu dira Nafarroan bizi diren biztanleengan, haietako gehienak, laurogeigarren hamarkadaren amaieran eta laurogeigarrenaren hasieran. 2000ko hamarkadan beherako joera edo joera egonkorra izan ondoren, 2012. urtetik kasu berrien tasa pixkanaka igo egin da; hala, 2011n 100.000 biztanletatik 4,8 kasu izan ziren, eta 2014an kopuru beretik 7,6. Diagnostiko berri gehienak sexu bidezko transmisioei dagokie. Aipatu beharra dago, Nafarroan, tasa horiek Espainiako batez besteko tasaren antzeko mailetan edo txikiagotan mantentzen direla.

Azken urteotan (2010-2014), kasu berrien % 77 gizonei dagokie, transmisio homosexuala nagusitzen dena (% 30); atzetik datoz praktika heterosexualengatik sortutako kasuak (% 25) eta materialaren erabilera partekatzeagatik drogak injektatzeko (% 4). Nolanahi ere, % 41ean ezin izan zen transmisio-mekanismoa finkatu, eta litekeena da sexu-transmisioagatik izatea ere.

GIB kasuen kopuru horren areagotzea, tratamendu antibiralean infektatutako pertsonen infekzioa transmititzeko aukera txikiagoa badute ere, arriskuko sexu-praktiken igoera nabarmenak bakarrik azaldu dezake; beraz, transmisioa saihesteko neurri guztiak hartu behar direla azpimarratu behar da.